

GAZTEEN MUNDUA EUSKALDUNTZEKO EGITASMOA

EKBren Administrazio Saila

Euskarak gazteen artean ezagutzen duen egoera benetan larria da. Azterketa soziolinguistikoek diotenez gazteak dira, orohar, euskararen ezagutza mailaren eta erabilpenaren arteko desfaserik handiena agertzen dutenak, euskararekiko motibaziorik altuena adieraztearekin batera. Hitz bitan: hizkuntz leialtasun tasa ez dator bat ageriko kontzientzia mailarekin.

Bistan denez, kontraesan honen azalpena ez da lortzen gazteen bizkar errua botaz eta beren jokabidea gezur sozialtzat salatuz. Jarrera horrek euskararen egoera minorizatuan ditu sustrai sakonak. Adin talde horrek gizartean nagusi den egoera - erdararen nagusitasunarena- isladatu eta areagotu baizik ez du egiten, egoera sozial horrek indartu egiten bait du gazteen erdararenganako joera horixe.

Baina horregatik ez ditugu egin gabe utzi behar gure esku dauden eginahalak. Eman daitezkeen aurrerapausu horiek erlatiboak eta partzialak izanagatik ere, ezinbesteko ditu euskarak gaur egun dagoen minimoetatik azpiko egoera honetan, eta gainera oinarri ezinbesteko dira normalizazio urrats kualitatibo eta global bat emateko.

Testuinguru horretan kokatzen da lan hau. EKBko Administrazio Saila osatzen duten euskara teknikariek egina, hasiera batean udal erakundeen kompetentzia eta lan esparrutik planteaturiko ihardunbidea nahi zuen izan. Berehala geratu zen motz, ordea, ikuspegi instituzional hutsez pentsaturiko plana eta herri dinamikaren funtsezko paperaz osatu nahi izan da bestela herren geratuko litzatekeena. Nolanahi ere, udal teknikariek sortua eta, batez ere, udal teknikarientzako laguntza programa denez gero, administrazioaren alderdia lantzen da gehienbat. Baina aintzat izan dugu, betiere, normalizazio prozesuaren giltza giza sail inplikatuak bere euskalduntzearen subjektu eta protagonista izatean datzala. Beraz, gazteen dinamika sustatzeko eta hori ahalbideratuko duten ekimenak bultzatzeko asmoz egin dugu lan, udal teknika-erantzutza gehiegixotan izaten dugun herri ihardunak administrazioaren dinamikan integratzeko tentaziotik ihes egin nahirik.

Txosten irekia da hau. Orain arteko esperientziak bilduz burutua eta aurrerantzean ere praxiaren froga pasa ondoren birformulatu beharko dena. Administrazioaren teknika-erantzutza, herrietako euskara-elkarte eta gazte taldeentzako tresna metodologikoa izan nahi du. Praktikan jartzen duten guztiei biziki eskertuko zaizkie aportazio, ohar, kritika eta informazioak. EKBko Administrazio Sailak guztiak aztertuko ditu eta zabalik dago gainera eztabaida hauetan parte hartu nahi duen edonorentzat.

Lan esparrua

15-25 urte bitarteko gazte taldeak eta gazteak:

- Herriko gazte elkarteak: kirol, aisialdi, gaztetxe, erlijio, politikoak, e.a.
- Ikastetxeetako gazte taldeak.
- Unibertsitateko gazte taldeak.

Helburu orokorra

15-25 urte bitarteko gazteen artean euskararen erabilpena normalizatzea trinkotze eta positibizazioaren bidez:

- Euskararen aldeko kontzientzia areagotzea.
- Euskara ezagutzen duten gazteen kopurua handitzea maila guztietan.
- Euskarak gazteen erabilpen esparruak irabaztea: familia, lagunartea, kalea, tabernak, dantzalekuak,...

a) Motibapena:

- Gazteak euskaltzale bihurtzea.
- Jarrera pasiboetatik jarrera ekileetara bultzatzea.
- Normalkuntza eragiteko gazteen inplikazioa sustatzea.

b) Ezagupena:

- Ez dakitenak euskara ikastera bultzatzea.
- Badakitenak beren gaitasuna hobetzera bultzatzea.

c) Erabilpena:

- Euskararen erabilpena areagotzea gazte euskaldunen artean.
- Euskara erabiltzen duten gazteen kopurua igotzea.

Helburuek neurgarriak behar dute izan. Ezagupena eta erabilpena neurtzeko moduak badaukagu, udal errolda eta erabilpenaren neurketak, hain zuzen (ikus lehenbiziko eranskina). Baina motibapenean helburuak betez ote goazen neurtzeko tresnak behar ditugu. Batetik inkesta soziologikoak daude (ikus 2. eranskina). Bestetik, gure ekinbidearen arrakasta neurtzeko honako elementuak baloratu behar ditugu: kontutan harturik zenbat gazte edo gazte talde ikutu dugun, zenbat inplikatu dugun neurtu behar dugu, bai eta zenbat euskaltzale euskararen alde era egonkor eta iraunkorrez funtzionatzeko prest dagoen. Helburu horiek, noski, ez dira berehala lortzekoak. Ekinbidearen arrakasta helburuetaranzko joera gertatzen den heinean frogatu ahal izango dugu.

Ihardunbideak

Gazte taldeen autokonpromezuak

1.- Helburu zehatzak:

a) Gazte taldeen artean ahalik eta autokonpromezu gehien lortzea euskara gehiago

erabiltzeko helburuarekin.

b) Ahalik eta gazte gehien inplikatzeko autokonpromezuetan.

c) Euskaraz ihardungo duen gazte taldeen egitura eratzea.

d) Euskal gune aintzindaria eratzea gazteen artean inizatibean koordinazioarako (lanak ez errepikatu, egin ahala optimizatu, presio soziala garatu,...); baina *dinamikak* koordinatzeko, eta ez besterik gabe alperrikako egitura finkoa izateko. Gazteen euskal egitura hau herriko euskara elkartearen sail bat izatea komeniko litzateke, izpiritu horretan bete-betean sartzeko delako, euskara elkarteetatik ere horrelako dinamikak planteatzen direnez lan errepikapenik ez egiteko, elkar ez oztopatzeko, eta gehiegizko egiturak alperrik ez sortzeko.

Lehentasuntzat erabateko euskalduntzea lortzeko moduan egon daitezkeen taldeak hartu beharko lirateke. Elebiduntze prozesuetan baino elebakar izatera irits daitezkeen inizatibetan egin behar dira ahaleginak. Baina horrekin batera, erdal taldeei informazio egokia eman behar zaie, beren energiek euskal taldeekiko negatiboki edota pasiboki jokatzeari utz diezaioten, elementu hori negatibo izatetik positibo izatera igaro dadin (positibizazio prozesua) eta euskal taldeen trinkotze prozesua oztopa ez dezan. Trinkotze prozesuak eta positibizazio prozesuak, txanpon baten bi aurpegi gisan, elkarren osagarri dira.

2.- Metodologia:

Faseak:

a) Erabilpenaren neurketa gazteen artean (ikus lehen eranskina).

b) Publizitatearen aldia ("Euskara gazteena" edo antzekorik).

c) Autoinplikazio prozesua.

3.- Autoinplikazio prozesua:

Autokonpromezu sistema irekia da. Gazte talde bakoitzak erabakitzen du zein alorretan eta zein mailataraino hartzen duen euskara gehiago erabiltzeko konpromezua.

"Autokonpromezu" formulari buruz zera argitu beharra dago: berez ez da hitzarmen bat, ezta udalarekiko konpromezu bat ere, autokonpromezu bat baizik. Udalak autokonpromezu hori eragin besterik ez du egin behar: informazioa eta aholkuak eman, garrantzia adierazi, taldearekin euskara hutsezko harremanak bideratu, autokonpromezuan sartzeko direnen inizatibak finantzatu, eta autokonpromezuaren jarraipenerako laguntza (lan teknikoa, itzulpenak, azpiegitura,...) ziurtatu. Zentzu horretan, talde bakoitzaren autonomiari begirune osoa izan behar zaio, baina udalak diru publikoaren kontrola eta optimizazioa bermatu behar ditu eta horretarako baldintza batzuk jar ditzake autokonpromezua beteko dela ziurtatzeari begira.

Hainbatetan gertatu da gazte talderen batzuk autokonpromezua sinatzeko interlokutoretzat udala ez onartzea. Horrelakoetan herriko euskara elkarteak izan daitezke interlokutorerik egokiena, nahiz eta udalaren baliabideak ez eduki. Are gehiago, euskara elkarteak (zabala eta plurala, eta horrelakotzat zer dugun ulertzeko ikus BAT aldizkari honetxan 6. zenbakian argitaratutako Koro Zumalabereren "Herrietako euskara elkarteak" artikulua) gizarte-errekonozimendua eta bitarteko nahikorik balitu, komenigarriagoa litzateke euskara elkarteak berak bultzatzea

autokonpromezuen bidea. Kasu honetan udalaren papera euskara elkarteari babes morala, finantzabideak eta laguntza eskaintzea litzateke.

Gazte talde bakoitzarekin harremanetan jarri behar da datu bilketa eta autokonpromezuen zehaztapena egiteko.

- Datu bilketa:

- a) Gazte elkartearen identifikazio datuak.
- b) Barne bizitzaren hizkuntz tratamenduaren adierazpena.
- c) Gazte elkartearen urteko iharduerak eta iharduera bakoitzaren elementu osagarriak.

- Euskararen erabilpenaren konpromezu mailak:

0: Erdaraz.

1: Sarbidea (% 25).

2: Elebidun (% 50).

3: Nagusiki (% 75).

4: Euskaraz (% 100).

Hiru helburu nagusi lortu behar da gazte talde bakoitzarekin egiten diren harreman horietan:

- 1) Gazte taldea informatzea eta motibatzea.
- 2) Gazte taldea inplikatzeko: autoinplikazioaren konpromezua jasotzen duen agiria sinatzea (3. eranskina).
- 3) Euskara arduraduna izendatzea, solaskide eragilearen eginkizuna betetzeko. Komenigarria da gazte talde bakoitzak euskara arduradun bat izendatzea. Saiatu beharra dago, haatik, taldeko gainerako kideak delegazionismoan eror ez daitezen eta hizkuntzaren normalkuntzaren auzia arduradunaren kezkatzat soilik jo ez dezaten. Baina errealitateak frogatzen du arduradunik ezean planak ez duela aurrera jotzen.

4.- Zerrendak:

- a) Gazte taldeen zerrenda.
- b) Autokonpromezua egin duten gazte elkarten zerrenda.
- c) Autokonpromezua egin ez duten gazte taldeen zerrenda.
- d) Euskarazko ikastaroetan dauden gazteen zerrenda.

5.- Jarraipena:

a) Talde bakoitzarekin (ikus 4, 5 eta 6. eranskinak):

- a.1) Hitzartutako konpromezuaren betetze egoeraren jarraipena:
 - Aurretikoa, bideratu baino lehen.
 - Bitartekoa, egikaritze-unean.
 - Ondorengoa, ebaluaketa.

a.2) Urteko ekintza egitasmoa eskaini. Hona hemen hainbat herritan egin izan diren ekintza batzu: euskararen kale-erabilpenaren neurketaren datuen berri ematea, autokonpromezuaren informazio publikoa, gazteak motibatuzeko kanpaina (prentsurrekoa, gutun personalizatuak gazteei, txartelak, eskuorriak, iragarkiak, kale-torretak, hitzaldiak ikastetxe eta gazte taldeetan, anagramak, kamisetak eta beste), bertako hizkera hobeto ezagutzeko ikastaroak, hika hitz egiten ikasteko ikastaroak, arlo jakin bateko (kirol mundua, esate baterako) lexikoa lantzeko ikastaroak, gazte jendearen artean nolabaiteko leader papera bete dezaketen beste gazte batzuren hitzaldi-emankizunak (musikariak, bertsolariak, mendizaleak, kirolariak,...), mahai-inguru eta eztabaidak gazteen interesekoak diren gaien inguruan, bisitaldi eta irteerak (ordu batzutakoak, egun osokoak, asteburukoak, egun batzutakoak nahiz udaldiak), afari eta jaialdiak, poteoak, erakusketak, bideo emanaldiak, dantza saioak, literatur lehiaketak, kirol txapelketak, eta abar.

b) Gazteen euskal egiturarekin:

b.1) Gazte taldeetako solaskide-eragileak biltzea.

b.2.) Egituraren ezaugarritapena:

- Helburuekin bat datozen gazte talde eta gazte guztiei irekia.
- Udalarengandik erabat autonomia, nahiz eta udalarekin harremana bideratzeko ere prest egon.
- Barne iharduketa: egiturak erabakitzen duen barne araubidearen arabera.

b.3) Urteko egitasmoa lantzea:

- Talde ezberdinen egitasmoen koordinazioa bultzatzea, bikoizketak ekiditeko.
- Esperientziak trukatzeko gunerik izatea, iharduerak aberasteko eta eraginkortasuna areagotzeko.
- Izaera bereko egitura sektorialetatik abiatuta egitasmo globalak lantzea.
- Urtez-urteko egitasmo globalak lantzea eta Udal Administrazioari aurkeztea finantzamenduan eskuhar dezan, bereziki egitasmoa burutu ahal izateko.
- Arazo puntualei erantzuna ematea.

b.4) Euskal gune aintzindaria eratzea osatu nahi dutenekin:

- Prozesu guztiaren talde eragilea litzateke.
- Gazte taldeetan ari diren gazteez osaturikoa litzateke.
- Euskaldun osoak lirateke partaide guztiak.
- Euskaraz bizitzea pertsonalki eta euskararen normalkuntza soziala helburutzat dituztenak izango lirateke.

Udalaren gazte iharduerak

Erizpide orokor bezala ekimen hauen tratamenduak, nagusiki, euskaraz behar du izan.

Lehendabizi udalaren gazte iharduerak euskalduntzeko urteko programa egin beharra dago:

- Sailak zeintzu diren definitu. Besteak beste: kultura, kirolak, aisialdia, enplegua eta

formazioa, eta gizarte ongizatea (bereziki drogomenpekotasunak).

- Sail bakoitzaren urteko egitaraua lortu.

-Urteko egitarauaren iharduera bakoitzaren osagarriak eta elementuak zehaztu.

(Iharduerak euskalduntzeko jarraipen fitxa ikus 7. eranskinean).

Gizarte elkarteen gazte iharduerak

Batez ere kirol taldeak, kultur elkarteak, aisialdi taldeak,... Hauen gazte iharduerak euskalduntzeko bi eragile nagusi dago: herritarrak eta udala.

a) Udalaren eskuhartzea:

Ihardueretarako baimenak, baldintzak edo subentzioak ematerakoan udalak ordenantzetan ezartzen diren betebeharrak eskatu behar ditu: eskubide pertsonalen, hizkuntzaren presentzia idatziaren eta ahozko erabilpenaren bermea.

Iharduera horiek burutzen ari diren bitartean zaindu egin behar dira: dagokion udal arloko arduradunaren lana behar luke izan horrek. Hirigintzan edo udal ihardueraren beste atal batzutan udalaren erabakiak betetzen diren ikusteko arduradunak dauden bezala, ikuskatzaileak behar dira herritarren hizkuntz eskubideak bermatzen diren zaintzeko. Ardura horrek, gainera, baimena eman duen udal sailarena berarena izan behar du, eta beste baldintzen artean hizkuntz baldintzak ere betetzen diren ikusi.

Baldintzak betetzen ez direnean araudi nagusiak dioena aplikatu beharko da (normalean subentziorik eza). Ihardueretarako baimenak eta kontzesioak ematen dituen udalak atal berak eman behar ditu subentzioak, hizkuntz baldintzak betetzen direnean. Sail bakoitzak bere burua eta bere iharduerak euskalduntzeko diru kopururik eduki behar du. Sail bakoitzak, esate baterako, inbertsioen atala, pertsonalarena eta subentzioena dauzkan bezalaxe, euskalduntzeko atala ere beharko luke izan.

b) Herritarren eskuhartzea:

Gizarte elkarteen iharduerak euskalduntzeko ordea, eraginkorragoa eta positiboagoa izan daiteke, dudarik gabe, barnetik egin daitekeen lana. Udalak eragiten (edo behartzen) dien heinean hizkuntz eskubideak errespetatuak izango dira, baina hori bezain interesgarria da gizarte elkarte horiek euskalduntze prozesu batetan inplikatzeari, hots, gazte taldeekin planteatu duguna bezalako autokonpromezu bidean abiatzea.

Zentzu horretan, herrietako euskara elkarteek funtzio garrantzitsua daukate betetzeko esparru guztietan dabiltzan euskaldunak trinkotuz eta esparru horietan diharduten erdaldunen hizkuntz egoera eta jokabidea positibizatuz. Izan ere, gizarte elkarte horien barneko ahaleginak izango dira emankorrenak euskararen normalizaziorako.

ERANSKINAK

Gazteen euskararen erabilpenaren kale neurketa

Taldeak:

- Adinaren arabera:• 15 - 20 urte.
 - 21 - 25 urte.
- Sexuaren arabera:• Emakumezkoak.
 - Gizonezkoak.

Guztira, 4 talde beraz.

Neurtu beharreko inguruak:

- Eskola irteerak.
- Kaleko erabilpena.
- Iharduera bereziak: kirola, gaueko giroa, etab.

Egutegia:

-Astegun arrunt bat eta larunbata. Neurketa udazkenean edo udaberrian egitea komeni da, ez negutik gertuegi, jende gutxiegi dabilelako kalean, ez uda aldera, jendea asko mugitzen delako (bai herritik herrira bai oporretara, bai turismoz datozen atzerritarrak) eta horrek ohizko egoera aldatu egiten duelako.

- Ordutegia:• Larunbatean:11etatik 13etara eta 19etatik 21etara.
 - Astegunez:13etatik 15etara (eskola irteerak) eta 18etatik 20etara.

Neurtu beharrekoak:

Udal erroldatik gazteen kopurua atera eta kopuru horren % 10 gutxienez neurtu beharra dago neurketaren fidagarritasuna lortu nahi bada. Hobe % 20 neurtuko balitz. Kopuruak kalkulatzekoan adin talde eta sexuaren banaketa ere errespetatu beharra dago.

Metodologia:

Honen inguruan ikus BAT-Soziolinguistika Aldizkariaren 3/4 zenbakiko "Euskararen kale-erabilpenaren neurketa 10.000 biztanletik gorako herrietan" artikulua eta bereziki 21-24 orrialdeak.

..... gazte elkarte euskalduntzeko autokonpromezu agiria

..... Jaunak / Andreakko Udalaren / Elkartearen ordezkari dena, honako agiri hau sinatzen du gazte taldearekin, euskararen erabilpena sustatzeko ondorengo orrietan zehazten den arabera.

Autokonpromezu honen jarraipenerako elkartekidea izendatua izan da euskara arduradun.

Autokonpromezu honen garapenerako,ko Udalak / Elkarateak laguntza hauek eskainiko ditu:

- Testuen itzulpena dohan.
- Monitoreentzako euskarazko ikastaroak dohan.
-

.....(e)n,ko(r)en(e)an.

Gazte taldearen izenean :ko Udalaren / Elkartearen izenean:

Izenpetua

Gazte taldearen identifikazio fitxa

Izena:
Helbidea:Tel.:
Posta kodea:
Noiz sortua:

Autokonpromezua (bai ala ez):
Euskara arduraduna:Tel.:

Elkarrizketatua:

Taldearen helburuak:

Elkartearen iharduerak - Urteko egitaraua:

Hizkuntz egoera
Orain Konpromezua
1.-
2.-
3.-
4.-
5.-
6.-
7.-
8.-

Zenbat kide:Zenbat euskaldun:(%)
Idazteko gai:(%)

Adina:16 - 20:(%)Besterik:< 16:(%)
21 - 25:(%)> 29:(%)
26 - 29:(%)

Organigrama, ordezkaritza batzordeen azalpena eta bakoitzaren hizkuntz egoera:

Beste erakunderen batekiko harreman sendo edo menpekotasunik:

Gazte taldearen barne bizitzaren hizkuntz tratamendua

ORAIN KONPROMEZUAK

Helburuak Epeak

Ageriko elementuak:

Ahoz:

Musika

Irratia

TB

Telefonia

Idatziz:

Inprimakiak

Oharrak

Kartelak

Barne harremanak:

Ahoz:

Harremanak

Bilerak

Idatziz:

Gutunak

Aktak

Txostenak

Euskararekiko orain arteko jarrera:

Orain arte ezer egin al duzue euskararekiko? Zer?

Zer deritzozue zaizue orain arteko kanpainari?

Zer proposatuko zenukete? Zer aldatu? Zer sakondu?

Monitoreak:

Ondoko monitoreak interesaturik leudeke euskalduntze edo trebakuntza ikastaroetan:

Elkartearen iharduerak

... IHARDUERA:

Azalpen laburra:

Maiztasuna eta iraupena (egunak zehaztu):

Antolatzaile eta hartzaileen banaketa:

Antolatzaile Hartzaile

Kopurua

Zenbat euskaldun
Idazteko gai

Adina:

16 - 20

21 - 25

26 - 29

Besterik: < 16

> 29

Hizkuntz tratamendua:

Orain Konpromezuak
Helburuak Epeak

Ihardueraren prestaketa lanetan:

- Oinarrizko elementuak:

.....

.....

.....

- Elementu osagarriak:

.....

.....

Iharduerak euskalduntzeko segimendu fitxa

Taldearen izena:

Taldearen funtzioa:

Ihardueraren antolatzaileak:

Ihardueraren babesleak edota laguntzaileak:

Ihardueraren izena:

Ihardueraren iraupena:

Ihardueraren maiztasuna:

Ihardueraren hartzaileak: - Hartzaileen adin taldeak:

- Hartzaileen gizarte hedadura:

- Hartzaileen geografi hedadura:

- Hartzaileen hizkuntza:

- Ekintzaren oihartzuna: Prentsa:

Irratia:

Telebista:

Iharduerak biltzen duen publikoa:

Ihardueraren azalpena eta euskara erabiltzeko asmoa